

Oihane Sarriegi Aldasoro

A maila • Aipamena



Kaixo! Ni Oihane Sarriegi Aldasoro naiz, beasaindarra. 18 urte ditut eta 2000ko otsailaren 19an jaio nintzen. Egun, Beasaingo Txindoki institutuan ari naiz ikasten, batxilergoko bigarren urtea hain zuzen. Zaletasun asko ditut, horien artean saskibaloia eta euskal dantzak. Beasaingo BKL saskibaloi taldean eta Aurtzaka dantza taldean ibiltzen naiz. Lehenengo urtea da sari hau irabazten dudana eta gustatzea espero dut.

BETIKO AGUR BAT

Kaixo...

Mara naiz. Oroitzen zara nitaz ezta? Oroituko ez zara ba...

Gorrotoa. Gorrotoa da orain zuegatik sentitzen dudana sentimendu bakarra. Eta gorroto dut neure burua. Bai, gorroto dut neure burua nire ondoan mantendu zintudalako, kalte besterik egiten ez zenidanean.

Bizitza kendu didazu. Tira, baliteke oso maite ez nuen bizitza izatea, baina, hori ere, zure errua izan zen, zuk bultzatu baininduzun nire bizitza gorrotatzera, benetan gustuko ez nuen bizimodura egokitzea, nire ondoan egongo zinela esanez. Ez dakit. Agian uste zenuen ekarri berri zenidan bizimodu hori gustuko nuela, ez bainintzen hartatik aldendu. Baina, hori ez da horrela; ni ez bainintzen egoeraz ohartzen.

Engainatu egin ninduzun. Familiak eta lagunek behin eta berriz esaten zidaten. Baina ni, itsuturik, haserretu egiten nintzen eta nire bizitzarekin nahi nuena egingo nuela eta bakean uzteko esanez ez nien jaramonik egiten. Eta begira, orain, nola amaitu dudana. Edozer egingo nuke nire bizitza berreskuratzeagatik. Edo, nolabait, denboran atzera egin eta guraso edo lagunei jaramon egiteagatik, horren egoskorra izan gabe.

Mila aldiz galdetu diot nire buruari ea zuegatik jo zenuen niregana. Nik ez zintudan ezagutu ere egiten, Bigarren Hezkuntzako hirugarren urtea egiten ari nintzen lagunak lehenengo aldiz zuri buruz hitz egiten entzun nituenean. Araiak aipatu zintuen orduko koadrila hartako elkarriketan. Adi-adi entzun genion guztiok, berak zurekiko zeuzkan sentimenduak azaleratzen zituen bitartean. Ezpain txikiak artetik zetozen hitzak emozioz gainezka irteten ziren eta Araiaren gaztaina begiek zuten distirak hunkitu egin gintuen denok. Lagunaren deskribapenaren ondoren, zureganako nolabaiteko erakarpina sentitu nuen, baina, inoiz ez nuen pentsatu horretara helduko ginenik, edo, hobeto esanda, hain gaiztoa eta bihozgabea izatera hel zintezkeenik.

Oroitzen dut lehenengo egun hura. Nahikariren etxe azpiko arropa dendan izan zen. Nahikarirekin nengoen, kurtso amaierako dantzaldirako soinekoak probatzen. Oraindik lau hilabete falta ziren, baina, badakizu, beti genuen dantzaldi haren aitzakia etxetik irten eta dendaz denda ibiltzeko, ezer erosteko asmorik gabe.

Esan bezala, Nahikariren etxe azpiko dendan genbiltzan, hura zen gure dendarik kutunena. Nik, hiru soineko eta zapata pare bat hartu nituen probatzeko, eta Nahikarik berriz, gona bat eta bi zapata pare. Han genbiltzan, modeloak bagina bezala, muturra tente pasiloetan gora eta behera, eta halako batean, dendako ispiluko isladan ikusi zintudan. Une horretan hasi zen guztia. Handik aurrera, oraindik zureganako interesa galdu gabe, irudikatzen zintudan bakoitzean sentsazio garrantza zetorkidan gogora, momentu hartako urduritasunak eragin zidan berbera, alegia.

Lehenengoz elkar ikusi genuen egun hartatik ez zen denbora luzerik igaro berriz ikusi arte, eta ordutik gerturatzen joan zinen, eta konturatzerako, familia eta lagunengandik urrundu ninduzun, nire bizitzarekin amaitu arte. Benetan, ez dakit zer nahi zenuen niregandik, baina zuk zurea lortzerarteko bakerik ez zenuen eman behintzat.

Hasierako egun haietan, askeago sentitzen nintzen. Ez zenuen nireganako horrenbesteko kontrolik. Orduak pasa ziren, egunak, asteak... eta hiru hilabeteren ostean, erabat menpe hartu ninduzun. Zure esanetara zegoen txotxongilo bat ematen nuen. Zure pentsamendu eta ikuspuntuak barneratu zenizkidan. Zuretzat nahi ninduzun, zuretzat bakarrik.

Barru barruan, Nahikarirekin igarotzen nituen arratsaldean hutsune handia nabaritzen nuen, dendaz denda edo herrian paseatuz, baita asteazken arratsaldero jaten genituen izozkiak ere. Eta, zer esanik ez larunbat gau haiek elkarren etxean, gozoki eta pare bat pelikula tarteko. Baina, zuk egokiarazi zenidan egunerokotasun hura hain nuen barneratuta...Nire gelatik eskolara, eskolatik etxera, komunetik pare bat buelta eta gelara berriro.

Amak askotan egiten zigun gelara bisita, zerbait jateko edo aire pixka bat hartzeko erregutuz. Baina guk, ezetz, bakean uzteko eta alde egiteko. Ama gaixoa... zenbat sufritu ote zuen.

Orain, badakit goiko pisuko Mirarirekin zabiltzala, ziur aski niri egin zenidan kaltea egiteko asmotan. Baina, ez duzu lortuko. Mirarik gertutik bizi izan zuen zurekin izan nuen harremana, eta badakit bera ere ez dela nire tranpa berean eroriko. Ezagutzen dut Mirari, eta neska azkarra eta kementsua da, zapaldu egingo zaitu. Eta orduan helduko da nire unea, barre egingo dut, momentuaz gozatuko dut, nik egin nahi izan nuena jasoko duzu azkenean.

Gainera, ez al zenuen nahikoa izan nirekin? Zergatik ez dituzu bakean uzten nire ingurukoak? Nahikoa sufritu zuten nire heriotzarekin. Bai, behin eta berriz kritikatu zintuzten. Gorroto handia zuten barnean, ni nola engainatu ninduzun ikusi eta haien bizitzak hondoratu ostean. Gure arteko harreman bidegabe hartatik urrundu nahi izan ninduten, baina ahalegin guztiak eginda ere ez zuten lortu, itsututa nengoen, zurekin gustura. Nik ez nuen inongo jarrera kaltegarriarik ikusten bertan, are gehiago, ustez nire buruaren onerako mantendu nuen zurekiko harremana. Gai horretan espezializatuak ziren pertsonengana eramaten ninduten etengabe, batek edo besteak zuregandik aldentzeko modua aurkituko zuen esperoan. Baina ez, ezinezkoa zen, iada gehiegi itsutu nintzen zurekin. Nik garrasi egiten nien, zurekin ongi nengoela eta nire bizitzan ez sartzeko esanez. Hura zen nire arma bakarra. Oihu egin, belarriak itxi eta kanpokoaz ahaztea.

Eskolan ere, nolabait, zabaldu zen gure arteko harremanaren berria. Oroitzen dut, asteartea zen. Goizero legez, zazpi eta erdietan elkartu nintzen Nahikarirekin, okindegi parean. Gosaria erosteko asmotan sartu ginen okindegira, eta bi galleta handi erosi genituen. Nik iada gosaldutik nuela esan nion Nahikariri, eta beraz, berak jan zituen bi galletak. A ze itxura zutena!

Eskolara hurbiltzen ari ginen heinean, ingurukoak begiradak sentitzen nituen gainean, eta txutxu-mutxuak entzuten nituen alde guztietan, bai klasekideenak eta baita klasekide ez zirenenak ere. Zuk ondo dakizunez, gorroto dut atentzioa nire gain izatea, eta, presioagatik edo ahuleziagatik edo, konortea galdu eta lurrera erori nintzen.

A zer nolako iskanbila sortu nuen! Nire onera itzuli nintzenerako, irakasle gelan nengoen, lurrean etzanda eta hankak aulki batean nituela. Gutxienez sei irakasle nituen inguruan, eta anbulantziari deitu ziotela esan zidaten. Hori entzutean, ia zorabiatu nintzen berriro! Hitz horrek bakarrik barruak nahasten zizkidan goitik behera. Hainbeste aldiz entzun izan

nion amari... anbulantzia gora eta anbulantzia behera! Ez dakit, mehatxu gisa, edo niregatik kezkatuta zegoelako.

Tira, halako batean heldu zen anbulantzia, bere sirena eta guzti. Bertan sartu eta ospitalera eraman ninduten.

Bertara heltzerako, gurasoak han nituen zain. Kezkatuta ziruditen, baina niri ez zitzaidan horren larria iruditzen. Medikuek dei egin zidan, eta amak musu bat eman zidan bekokian gelara sartu aurretik.

Medikuek, lasai egoteko esan zidan. Sedatu eta proba batzuk egin behar zizkidatela, eta ez kezkatzeko, ezertxo ere sentituko ez nuelako.

Esnatu nintzenean, gurasoak negar batean ikusi nituen, nire ohe ondoan, medikuarekin hizketan. Halako batean, zure izena entzun nuen. Eta jarraian, inoiz ahaztuko ez ditudan hitz batzuk esan zituen amak: "gure errua da guzti hau, guk aspaldi antzeman eta susmoak hartu genituen, baina arazo handietan sartzea eragotzi nahian, irteerarik gabeko arazo batean amaitu dugu".

Ez nuen gehiago etxera joaterik izan. Ospitalean igaro nituen bizitza ilun hartan geratzen zitzaizkidan egun gutxiak, lau pareten artean. Amak nire ondoan eman zituen azken egun haiek ere, eta bere sufrimendua ezkutatzen saiatzen zen, ni alaitu nahian. Nahikari ere pare bat aldiz pasatu zen ni agurtzera, eta barkamena eskatu nien, behin eta berriz, errudun sentitzen nintzen, azken hilabeteetan jaramonik egin ez nielako. Egunen batean berriz elkartuko ginela agindu nien, betiko. Medikuek azken ahaleginak egin zituzten ni hartatik ateratzeko, baina, amak esan bezala, beranduegi zen. Hezurretan nengoen, 34 kilo ingururekin. Zain guztiak agerian nituen, nire bihotz taupadak kanpotik ikus zitezkeen.

Gelditu ziren arte.

Eta, esan bezala, ene anorexia, ez dizut inoiz barkatuko.

Eta orain, mesedez, alendu zaitez nire familia, lagun, bizilagun, herritar eta munduan bizi diren gizaki guztiengandik; inork ez baitu zure torturarik merezi.

Beraz, betiko agur bat,

Mara.